

SMG zerbitzuak Pribatutasun-gidalerro orokorrak

Eguneratze-data: 2018ko martxo

«**SMG zerbitzuen**» bidez bildutako datu pertsonalak SMGk nola tratatuko dituen ezartzen dute pribatutasun-gidalerro hauek. Hauek ulertzen dira SMG zerbitzutat: webgune hau eta pribatutasun-gidalerro hauek argitaratuta, estekatuta edo aipatuta dituzten beste webgune, zerbitzu eta aplikazio batzuk (esaterako, mugikorretarako aplikazioak). Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazioari esaten zaio «datu pertsonal». Hauenak dira SMG zerbitzuak eta/edo honakoek eskaintzen dituzte: Service Management Group, LLC, Service Management Group Limited, Service Management Group GK eta haien bazkideak (guztiak batera, «**SMG**» edo «gu»). Datu pertsonalak nola biltzen eta tratatzen ditugun ezartzen dute pribatutasun-gidalerro hauek.

IRAKURRI ARRETAZ PRIBATUTASUN-GIDALERRO HAUEK. Pribatutasun-gidalerro hauetan adierazi bezala bildu eta tratatuko dira datu pertsonalak.

Oraindik ez badituzu irakurri SMG zerbitzu-baldintzak, irakur itzazu. Bertan, gure webguneak, aplikazioak, zerbitzuak eta mugikorretarako aplikazioak («SMG zerbitzuak») nola erabili behar dituzun arautzen da.

EZ BAZAUDE ADOS PRIBATUTASUN-GIDALERRO EDO ZERBITZU-BALDINTZA HAUETAKO ATALEN BATEKIN, EZ ERABILI SMG ZERBITZURIK.

- 1. PRIBATUTASUN-GIDALERROAK ALDATZEA**
- 2. SMGK TRATATZEN DITUEN DATU PERTSONALEN KATEGORIAK**
- 3. NOLA BILTZEN DUGU INFORMAZIOA ETA ZERTARAKO TRATATZEN DUGU?**
- 4. TRATAMENDURAKO LEGE-OINARRIA**
- 5. NOLA ERABILTZEN ETA PARTEKATZEN DITUGU DATU PERTSONALAK?**
- 6. DATU PERTSONALAK GORDETZEA ETA EZABATZEA**
- 7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN INGURUAN DITUZUN
ESKUBIDEAK ETA AUKERAK**
- 8. DATU PERTSONALAK EZ EMATEAREN ONDORIOAK**
- 9. COOKIE-N GIDALERROAK**
- 10. ZURE KONTUKO INFORMAZIOA KUDEATZEA**
- 11. HAURREN PRIBATUTASUNA**
- 12. HIRUGARRENEN ZERBITZUETARAKO ESTEKAK**
- 13. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA**
- 14. FAKTORE GEOGRAFIKOAK ETA DATU PERTSONALEN MUGEZ HARAINDIKO
TRANSFERENTZIAK**
- 15. NOLA JAR ZAITEZKE GUREKIN HARREMANETAN?**
- 16. DATUAK KONTROLATZEAREN ETA BABESTEAREN ARDURADUNA**

1. PRIBATUTASUN-GIDALERROAK ALDATZEA

Noizbehinka eguneratuko ditugu pribatutasun-gidalerro hauek; hain zuzen ere, haietan eragina duten aldaketak egiten ditugunean (adibidez, zerbitzu eta aplikazio berriak gehitzean, zerbitzuak hobetzean, eta teknologiak eta legeak aldatzean). Pribatutasun-gidalerro hauek azkeneko noiz eguneratu ziren erakusten du web-orri honen goialdean jasotzen den eguneratze-datak. SMGk ohar bat argitaratuko du aldaketa horiek garrantzitsuak badira, eta, lege aplikagarriak hala eskatuz gero, baimena eskatuko dizugu aldaketa horiek onar ditzazun. Gure webgunean eta aplikazioetan argitaratuko dugu aldaketei buruzko oharra.

2. SMGK TRATATZEN DITUEN DATU PERTSONALEN KATEGORIAK

SMGk merkatu-ikerketak egiten ditu gai eta zerbitzu jakin batzuei buruz kontsumitzaileak zer lehentasun dituen hobeto ulertu nahi duten enpresen izenean. Enpresa horiek gure «**bezeroak**» dira. «**Inkestak**» ere egiten ditugu bezeroen izenean, eta kontsumitzaileei buruzko estatistikak lortzeko erabiltzen dugu informazio hori; adibidez, non, noiz eta zer maiztasunarekin joaten diren kontsumitzaileak dendetara eta denda horietan zer esperientzia dituzten. Inkesta bati erantzuten diozunean edo SMG zerbitzuak erabiltzen dituzunean, borondatez eman dizkiguzun datu pertsonalak biltzen ditugu.

Besteak beste, datu pertsonal hauek biltzen ditugu: (1) harremanetarako datuak (adibidez, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta enpresa); (2) datu demografikoak (esaterako, generoa, jaiotze-data eta posta-kodea); (3) inkestetako erantzunak, baldin eta erantzunetako informazioak zu identifikatzen bazaitu edo banako pertsona identifikagarri gisa zuri lotuta badago eta (4) SMG zerbitzuak erabiltzeko moduari buruzko informazioa («erabilera-datuak»).

Besteak beste, erabilera-datu hauek biltzen ditugu: (1) IP helbidea; (2) domeinuaren zerbitzaria; (3) zerbitzuak atzitzeko erabilitako gailu mota; (4) arakatzaileren eta gailuaren arteko interakzioari lotutako estatistikak eta informazioa (adibidez, gailuaren modeloa; operadorea/sarea; bateriaren iraupenari buruzko informazioa, geratzen den baterian oinarrituta kokapenen laginketa hobetzeko eta zure gailuari buruzko oinarritzko erabilera-estatistikak); (5) denbora errealeko GPS datuak edo geokokapeneko beste batzuk, gailuko kokapen-ezarpenen (edo antzekoen) bidez informazioa biltzeko baimena ematen diguzunean eta (6) zerbitzuak atzitzeko erabili duzun web-orria edo beste bitartekoren bat. Inkestei sarean erantzuten diezunean, zure gailuari buruzko atributu eskusibo ugari biltzen ditugu iruzurra hautemateko eta saihesteko.

3. NOLA BILTZEN DUGU INFORMAZIOA ETA ZERTARAKO TRATATZEN DUGU?

SMG zerbitzuak erabiltzen dituzunean ematen diguzun eta jasota geratzen den informazioa biltzen eta tratatzen dugu. SMG zerbitzuak zer bidetatik atzitzen dituzun eta nola erabiltzen dituzun, era bateko edo besteko informazioa bilduko dugu eta era batera edo bestera tratatu.

Zugandik jasotzen dugun informazioa. Kasu hauetan biltzen dugu informazioa zugandik:

- **Inkestei erantzuten diezunean:** Kontsumitzaile gisa dituzun esperientziei eta daukazun lehentasunei buruz inkestetan ematen dituzun erantzunetako informazioa biltzen dugu. Kontsumitzaile gisa dituzun esperientziak hobeto ulertzeko, inkestetako erantzunen bidez eman diguzun informazioaz gain, bezeroek zuri buruz bidaltzen digutena ere hartu ahal izango dugu kontuan; besteak beste, zer inplikazio duzun bezeroen leialtasun-programetan. Oro har kontsumitzaileen esperientziak hobeto ulertzeko, inkestetako erantzunen bidez eman diguzun informazioaz gain, beste erabiltzaile batzuek eman digutena ere hartu ahal izango dugu kontuan. Inkesta bati erantzuten diozunean, kontsumitzaileen esperientziei eta lehentasunei buruz bezeroentzat egiten ditugun txostenetan eta beste azterlan batzuetan erabiliko da ematen diguzun informazioa, edo bestela, informazioa biltzerakoan adierazten dizugun beste zerbaitetarako. Ez baduzu nahi zuri buruzko informazioa txostenetan, azterlanetan edo adierazitako beste zerbaitetarako erabiltzea, inkestari ez erantzutea erabaki ahal izango duzu.
- **SMG zerbitzuak erabiltzen dituzunean.** Automatikoki biltzen ditugu erabilera-datuak SMG zerbitzuak erabiltzen dituzunean, cookie-n eta datuak biltzeko beste tresna batzuen bidez. Hainbat gauzatarako erabiltzen ditugu erabilera-datuak, hala nola: zure gailuaren eta gure sistemen arteko komunikazioa hobetzeko, inkestak egiteko, inkesten segurtasuna bermatzeko, iruzurra hautemateko eta saihesteko, merkatu-

ikerketak egiteko, gure webgunea eta aplikazioak kudeatu eta hobetzeko eta SMG zerbitzuen erabilera aztertu eta zerbitzuak zabaltzeko. Cookie-ak eta datuak biltzeko bestelako tresnak nola eta zergatik erabiltzen ditugun jakiteko informazio gehiago nahi baduzu, irakurri pribatutasun-gidalerro hauetako «Cookie-n gidalerroak» atala.

- **SMG zerbitzuak erabiltzerakoan datu pertsonalak bidaltzen dituzunean:** SMG zerbitzuak erabiltzeari lotutako datu pertsonalak bidaltzen dituzunean (adibidez, laguntza edo informazioa jasotzeko gurekin harremanetan jartzen zarenean edo gure bezeroetako batekin izan duzun esperientziari buruzko iruzkinen bat egiten dituzunean), zuk bidalitako informazioa biltzen eta aztertzen dugu. SMGri iruzkinak bidaltzen dizkiozunean, bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak eta, oro har, egiten ditugun merkatu-ikerketak hobetzen laguntzen digu ematen diguzun informazioak. Baimena ematen badiguzu, TrumpetRatings.com webgunean edo bezeroen webguneetan argitaratu ahal izango dira iruzkinak. Informazio hori foro publiko batean (adibidez, TrumpetRatings.com) edo publiko orokorrak atzi ditzakeen beste webgune batzuetan argitaratzen bada, informazio hori publikoa bihurtzen da. Baliteke idatzi duzuna hirugarrenek ikustea edo biltzea, eta beste batzuek erabiltzea, guk kontrolatu edo iragarri ezin dugun moduetan.
- **SMG zerbitzuak sare sozialetako kredentzialen bidez atzitzen dituzunean:** Baliteke SMGk «sare sozialak» erabiltzeko aukera ematea SMG zerbitzu jakin batzuk atzitu ahal izateko. SMG zerbitzuak sare sozialetan saioa hasteko kredentzialen bidez atzitzea erabakitzen baduzu, baliteke, zure pribatutasun-ezarpenen arabera, SMGk sare sozialari eman diozun informazioa atzitu ahal izatea; esaterako, izen-abizenak, helbide elektronikoa, profileko argazkia, argitalpenak, iruzkinak edo sare sozialeko kontuari lotutako bestelako informazioa. Pribatutasun-gidalerro hauetan azaldutako helburuetarako erabili ahal izango dugu informazio hori, baita informazioa biltzerakoan adierazi genizkizun helburuetarako ere. Ez baduzu nahi sare sozialen hornitzaileek sare sozialetan duzun informazioa SMGren partekatzea, ez erabili sare sozialetan dituzun kontuak SMG zerbitzuak atzitzeko.

Gure bezeroengandik jasotzen dugun informazioa. Gure produktu eta zerbitzuetako batzuei dagokienez, gure bezeroek informazioa bidali ahal izango digute haien marka, produktu eta zerbitzuekin dituzun interakzioei buruz; besteak beste, bazkide zaituzten leialtasun-programei buruzkoa eta gure bezeroekin egindako transakzioei buruzkoa. Informazio horrekin batera biltzen dugun bestelako informazioa ere erabili ahal izango dugu egiten ditugun merkatu-ikerketak zabaltzeko eta gure bezeroei zerbitzu hobek eskaintzeko.

4. TRATAMENDURAKO LEGE-OINARRIA

- 4.1. Inkestaren bati erantzuten diozunean edo SMG zerbitzuak erabiltzen dituzunean, harremanetarako datuak, datu demografikoak eta inkestetako erantzunak tratatzen ditugu. Bai gure bezeroen, bai SMGren beraren zilegizko interesetan oinarrituta tratatzen ditugu datu pertsonalak. Izan ere, batetik, gure bezeroek kontsumitzaileen iritzia jakin nahi dute beren produktu eta zerbitzuak hobetzeko, kontsumitzaileen eta negozioen mesederako; eta, bestetik, SMGk bere produktu eta zerbitzuak eta merkatu-ikerketak areagotu nahi ditu, eta horrez gain, erabiltzaileen laguntza- edo informazio-eskaerei ere erantzun nahi die.
- 4.2. Inkestaren bati erantzuten diozunean edo SMG zerbitzuak erabiltzen dituzunean, erabilera-datuak ere tratatzen ditugu. Inkestari erantzutea aukeratzen baduzu tratatuko ditugu erabilera-datuak; horretarako, baimena eman behar diozu SMGri cookie-ak eta datuak biltzeko beste teknologia batzuk erabiltzeko. Baimena kendu nahi badiozu, jarri datuak babestearen arduradunarekin harremanetan, posta

elektroniko bidez (privacyofficer@smg.com) edo gutun bidez (Data Protection Officer, Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108).

- 4.3. SMG zerbitzuak atzitzeko sare sozialak erabiltzen badituzu, sare sozialetan eman duzun informazioa ere tratatu ahal izango dugu, zure pribatutasun-ekarpenen arabera. Informazio hori tratatu ahal izateko, baimena eman behar diozu sare sozialari pribatutasun-ekarpenetan. Baimena kendu nahi badiozu, pribatutasun-ekarpenak aldatu behar dituzu, sare sozialetan dituzun datuak atzi ez ditzagun.
- 4.4. Bezeroek bidaltzen diguten informazioa tratatzen dugu, haien marka, produktu eta zerbitzuekin dituzun interakzioei buruzkoa. SMGren eta haren bezeroen zilegizko interesetan oinarrituta tratatzen dugu informazio hori, guztiek nahi baitituzte SMGren eta haren bezeroen produktu eta zerbitzuak hobetu eta SMGren merkatu-ikerketak zabaldu.

5. NOLA ERABILTZEN ETA PARTEKATZEN DITUGU DATU PERTSONALAK?

SMG zerbitzuak nola erabiltzen edo atzitzen dituzun, era batera edo bestera erabili eta partekatuko dugu biltzen dugun edo ematen diguzun informazioa. Legearen arabera, zuk hala eskatuz gero, datu pertsonalak hirugarrenei emateari utzi beharko dio SMGk.

- **Zurekin komunikatzea.** Gure arteko harremana kudeatzeko eta zurekin komunikatzeko posta, telefono, posta elektronikoa, mugikorrek abisu edo SMS bidez erabiliko ditugu zure datu pertsonalak. Inkestako partaideren batek berriaz eskatu ezean, SMG ez da jarriko partaideekin harremanetan, egin beharrekoak egiteko ez bada behintzat; hau da, inkestaren segurtasuna egiaztatzea, inkestak bidaltzea, inkestaren bati erantzuteagatik sariak edo abantailak ematea edo arreta-zerbitzua eskaintzea. Nahiz eta SMGk ez dituen erabiltzen datu pertsonalak zuzenean marketina egiteko, eman begiratu bat zure datu pertsonalak biltzeko eskatu digun bezeroaren pribatutasun-gidalerroei, bezero horrek halakorik egiten duen jakiteko. Zurekin dugun harremana kudeatzen laguntzen diguten zerbitzu-hornitzaileekin partekatu ahal izango ditugu zure datu pertsonalak.
- **Eskatzen dituzun zerbitzuak ematea.** Eskatzen dituzun zerbitzuak emateko edo abiarazten dituzun funtzioak betetzeko erabili eta partekatu ahal izango ditugu zure datu pertsonalak; adibidez, eztabaida-guneetan, foroetan edo sare sozialetako gure orrietan informazioa argitaratzen duzunean. Horretaz gain, baimena ematen badiguzu, zure datu pertsonalak ezagutarazi ahal izango ditugu zure jakinarazpenak SMG zerbitzuen bidez jasotzen dituztenen aurrean zu identifikatzeko. Horretaz gain, hirugarrenekin ere erabili eta partekatu ahal izango ditugu zure datu pertsonalak, inkestei erantzuteagatik eskatu eta lortu dituzun sariak jasotzeko eta abantailak gozatzeko. Zozketa edo bestelako promozioen batean parte hartzen baduzu, promozio horien administratzaileei bidaltzen diegu zuri buruzko informazioa, zure galderei erantzun diezaieten edo zurekin harremanetan jar daitezkeen saria irabazi baduzu edo promozioarekin erlazionatutako beste konturen bat badago.
- **SMG zerbitzuen erabilera aztertzea eta zerbitzuak hobetzea.** SMG zerbitzuen erabilerari buruzko estatistikak egiteko, iruzurra hautemateko eta funtzionamendua hobetzeko erabiltzen ditugu cookie-n eta datuak biltzeko beste tresna batzuen bidez biltzen ditugun datu pertsonalak. Banakoek SMG zerbitzuak nola erabiltzen dituzten aztertzeko erabili ahal izango ditugu hirugarrenen webguneei buruzko estatistika-zerbitzuak; adibidez, zenbat klik egin dituzten, zer mugimendu egin dituzten eta gora eta behera zenbat aldiz egin duten erregistratzeko eta baita formatu irekiko testu-koadroetan zer testu idatzi duten jakiteko ere. Gure erabiltzaileek SMG zerbitzuak nola aurkitzen eta erabiltzen dituzten hobeto ulertzeko, gure zerbitzuak zabalteko eta

erabiltzaileen esperientzia hobetzeko erabiltzen dugu hirugarrenen zerbitzuen bidez bildutako informazioa.

- **Datuak beste zerbitzu-hornitzaile batzuekin partekatzea.** Zenbait lan egiteko (adibidez, ostatatzeko, datuak biltegitatzeko eta segurtasuna bermatzeko) kontratatzen ditugun zerbitzu-hornitzaileekin partekatu ahal izango dugu zuri buruzko informazioa, eta baita zure datu pertsonalak ere. Erlazionatutako beste SMG zerbitzu batzuk eskaintzeko ere partekatu ahal izango ditugu zure datu pertsonalak; adibidez, kudeatzen ditugun balorazio- eta iritzi-webguneetako zerbitzuak eskaintzeko.
- **Datuak bezeroekin partekatzea.** Gure bezeroetako batekin izan duzun esperientziari buruzko inkesta bati erantzuteko atzitzen badituzu SMG zerbitzuak, bezero horrekin partekatzen ditugu inkestako erantzunei buruz eta haiekin erlazionatuta zugandik biltzen ditugun datu pertsonalak. Merkatu-ikerketari buruzko estatistikak lortzeko eta bezeroei kontsumitzaileen portaerari buruzko estatistikak eta enpresa-adimena eskaintzeko ere erabili ahal izango ditugu datu pertsonalak. Zure datu pertsonalak biltzeko eskatu digun bezeroak datu pertsonalak nola erabiltzen, babesten eta tratatzen dituen jakiteko, irakurri bezero horren pribatutasun-gidalerroak. Hainbat motatako informazioa ere konbina dezakegu guk eta gure bezeroek; esaterako, guk, gure bezeroak edo hirugarrenek zugandik edo zuri buruz bildutako datu pertsonalak. Pribatutasun-gidalerro hauetan ezarritako helburuetarako erabili ahal izango du SMGk informazio hori guztia, eta gure bezeroek, berriz, beren pribatutasun-gidalerroetan zehaztutako helburuetarako.
- **Legezko betebeharrak betetzea eta legezko eskubideak betearaztea.** Beste hainbat gauzatarako ere partekatu ahal izango dugu zugandik biltzen dugun informazioa; esaterako, gure eskubideak betearazteko eta gure jabetza babesteko, besteen eskubideak, jabetza edo segurtasuna babesteko, nahiz kanpo-auditoriak egiten, legeak betetzen eta gobernu korporatiboko funtzioak betetzen laguntzeko. Datu pertsonalak ezagutarazi egingo ditugu legezko edo arauzko betebeharrak bati erantzuteko beharrezkoa baderitzogu (esaterako, zitazioa, datuak babesteko agintari edo epaile baten agindu loteslea, legezko prozesua edo gobernu-eskaera). Betebeharrak hori bizi zaren herrialdetik kanpoko erakunde batek ezarritakoa ere izan daiteke. Irtenbideak proposatzeko edo kalteak mugatzeko ere partekatu ahal izango ditugu datu pertsonalak.
- **Aldaketa korporatiboak gertatzean datuak transferitzea.** Halakoetan ere transferitu ahal izango dugu zuri buruzko informazioa, datu pertsonalak barne: osorik edo partzialki, SMG edo haren kideak berrantolatu, fusionatu, saldu, elkartu, esleitu, transferitu edo erosten badira, edo haien jabetza edo kontrola aldatzen bada (adibidez, porrot egin dutelako). Datu pertsonalak jasotzen dituen erakundeak ohar bat bidaliko dizu datuak tratatzeari dagokionez pribatutasun-gidalerro hauetan adierazitakoekin bat ez datozen helburuen berri emateko, baita funtsean pribatutasun-gidalerro hauetan jasotakoez bestelakoak diren pribatutasun-jardunbideen berri emateko ere. Legeak hala eskatzen duenean, erakunde horrek zure baimena ere izan behar du.
- **Datu pertsonalak beste enpresa-helburu batzuetarako erabiltzea.** Zilegizko beste enpresa-helburu batzuetarako ere erabil ditzakegu zure datu pertsonalak; besteak beste, produktu eta zerbitzuak garatzeko eta SMG zerbitzuak kudeatzeko.

6. DATU PERTSONALAK GORDETZEA ETA EZABATZEA

Hasieran adierazitako helburuetarako behar adina denboran baino ez ditugu gordeko zure datu pertsonalak erregistroetan. Informazio hori jada ez badugu behar hasieran adierazitako helburuetarako, segurtasun osoz ezabatuko ditugu zure datu pertsonalak.

elektroniko guztiak, baita datu pertsonalen kopia inprimatuak suntsitu ere, legezko betebeharrak betetzeko behar dena izan ezik.

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN INGURUAN DITUZUN ESKUBIDEAK ETA AUKERAK

Edonoiz utz diezaiokezu inkestetan parte hartzeari; horretarako, ez atzitu SMG zerbitzuak.

Zure datu pertsonalei dagokienez ekintza zehatzak eskatzeko eskubideak ematen dizkizuten legeak edo arauak baldin badaude bizi zaren tokian, lege edo arau horiek ematen dizkizuten eskubide zehatzak izango dituzu; besteak beste, zure datu pertsonalak kontsultatzeko eta moldatzeko (*adibidez*, aldatzeko edo osatzeko) edo zuzentzeko eskubidea, zure datuak transferitzekoa (*adibidez*, datuak eramatekoa), zure datu pertsonalen tratamendua murriztekoa, zure datu pertsonalak tratatzearen aurka egotekoa, baimena kentzekoa, kontua ixtekoa eta kontrol-agintarien aurrean erreklamazio bat jartzekoa. Eskubideez baliatzeko eskaerak lege eta arau aplikagarrietan azaltzen diren parametroei jarraiki bideratuko dira.

Europar Batasunean bizi bazara, Datuak Babesteari buruzko Arau Orokorrak eskubidea ematen dizu SMGri jakinarazteko zure datu pertsonalak kontsultatu eta moldatu edo zuzendu nahi dituzula, datuak tokiz aldatu nahi dituzula, zure datu pertsonalen tratamendua murriztu nahi duzula, zure datu pertsonalak tratatzearen aurka zaudela, baimena kendu nahi duzula edo kontrol-agintarien aurrean erreklamazio bat jarri nahi duzula. Europar Batasunetik kanpo bizi bazara, baliteke tokiko legeek zenbait eskubide ematea datuen interesdun gisa.

Eskubide horiez baliatzeko eskaera egiteko, jarri datuak babestearen arduradunarekin harremanetan, posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com) edo gutun bidez (Data Protection Officer, Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108).

8. DATU PERTSONALAK EZ EMATEAREN ONDORIOAK

Nahiz eta inkestetan parte hartzea borondatezkoa den, baliteke zenbait pizgarri, sari edo abantaila jaso ezin izatea inkestan eskatutako informazio guztia ematen ez baduzu.

9. COOKIE-N GIDALERROAK

9.1. Zer dira cookie-ak?

SMGk eta gure zerbitzu-hornitzaileek «cookie» izeneko testu-fitxategi txikiak erabiltzen dituzte. **Zure web-arakatzailera edo ordenagailuaren, gailu mugikorraren edo tabletaren disko gogorrera bidaltzen diren edo haien bidez atzitzen diren ordenagailuko fitxategi txikiak dira «cookie-ak»**, eta zure ordenagailuari buruzko informazioa biltzen dute; esaterako, erabiltzaile IDa, erabiltzaile-ezarpenak, arakatze-historia, eta zerbitzuak erabiltzerakoan egindako jarduerak. Cookie-k informazio hau izan ohi dute: cookie-a sortu zuen domeinuaren izena (Interneteko kokapena), cookie-aren iraunaldia (hau da, haren iraungitze-data) eta ausaz sortutako zenbaki edo identifikatzaile eskusiboa. Datu pertsonalei lotuta egon daitezke cookie--ak.

9.2. Nola erabiltzen ditugu cookieak eta datuak biltzeko tresnak?

Cookie-k SMG zerbitzuak hobetzen laguntzen digute, zure nabigazio-ohituren jarraipena egiteko eta erabiltzen dituzun SMG zerbitzuak pertsonalizatzeko aukera ematen digutelako. Cookie-i esker, SMG zerbitzuei buruzko informazio teknikoa eta nabigaziokoa azter dezakegu, eta iruzurra hauteman eta saihestu.

Erabiltzen dituzun SMG zerbitzuak hobetzeko ere erabiltzen ditugu **datuak biltzeko tresnak** deiturikoak (hau da, cookie-ak eta datuak biltzeko beste tresna batzuk; adibidez, webguneetako kokapen-adierazleak eta zerbitzarietako egunkariak). Horrela, besteak beste, noiz bisitatzen gaituzun gogoratzen dugu eta eduki egokiagoa erakusten dizugu.

SMG zerbitzuak atzitzeko erabiltzen duzun gailuari buruzko informazioa biltzeko ere erabili ahal izango ditugu datuak biltzeko tresnak; esaterako, sistema eragilea, arakatzaille mota, domeinua, sistemaren ezarpenak, sistemak darabilen hizkuntza eta gailuaren herrialdea eta ordu-zona.

9.3. Cookie-n kontrola

Arakatzailleetako ezarpenen bidez, cookie gehienak nolabait kontrolatzeko aukera ematen dute web-arakatzailleek. Zenbait web-arakatzailleetako ezarpenek (adibidez, mugikorretako web-arakatzailleetakoek) cookie-ak ez onartzeko aukera ematen dizute, edo ordenagailuan, tabletan edo gailu mugikorretan cookie-ren bat kokatzen denean jakinarazpen bat jasotzeko aukera. Gailu mugikorren identifikatzaileak baztertu nahi badituzu, aktibatu dagokion ezarpena gailu mugikorrean. SMGren cookie-ak edo gailu mugikorren identifikatzaileak onartu behar ez badituzu ere, blokeatu edo baztertu egiten badituzu, agian ezin izango dituzu atzitu SMG zerbitzuek eskaintzen dituzten aukera guztiak. Horretaz gain, webgune edo aplikazioetan cookie-ak erabili ahal izateko zuri baimena eskatzera behartzen gaituen jurisdikzio-eremu batean bizi bazara, webgune edo aplikazio horietan dituzun cookie-n hobespenak kudeatzeko aukera izango duzu; hala ere, ezin izango dituzu desgaitu webgune edo aplikazio horien funtzio nagusiak gaitzeko beharrezkoak diren cookie-ak.

10. ZURE KONTUKO INFORMAZIOA KUDEATZEA

Zuri buruz dugun informazioa kudeatu eta zuzendu nahi baduzu, joan SMG zerbitzu aplikagarriari dagokion kontuko atalera. Zure datu pertsonalak atzitzeko edo zuzentzeko moduari buruzko galderarik baduzu, jarri datuak babestearen arduradunarekin harremanetan, posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com) edo gutun bidez (Data Protection Officer, Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108).

11. HAURREN PRIBATUTASUNA

SMG zerbitzuak oro har pertsona guztiei daude zuzenduta, baina ez gure jurisdikzioetan datu pertsonalak tratatzeko baimena eman ahal izateko adina ez duten haurrei. Ez dugu biltzen halako haurren datu pertsonalik; ez nahita, bederen. Datu pertsonalak tratatzeko baimena eman ahal izateko legezko adina ez duen haurren batek gurasoen baimenik gabe datu pertsonalak eman dizkigula ikusten baduzu, jarri datuak babestearen arduradunarekin harremanetan, posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com) edo gutun bidez (Data Protection Officer, Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108). Dagokion jurisdikzioan datu pertsonalak tratatzeko baimena eman ahal izateko adina ez duen haur batek gurasoen baimenik gabe datu pertsonalak eman dizkigula ikusten badugu, kendu egiten dugu informazioa, eta lehenbailehen itxi haurraren kontua.

12. HIRUGARRENEN ZERBITZUETARAKO ESTEKAK

Baliteke SMG zerbitzuek **SMGrekin zerikusirik ez duten** hirugarrenen webgune eta zerbitzuetarako estekak izatea («hirugarrenen zerbitzuak»). Gure zerbitzuetan hirugarrenen zerbitzu baterako esteka egoteak ez du esan nahi zerbitzu hori onartzen dugunik, ezta bertan ageri den informazioa zuzena edo zehatza denik ere. Hirugarrenen zerbitzu batean sartzea erabakitzen baduzu, haren pribatutasun-jardunbideei jarraitu beharko diezu, eta ez pribatutasun-gidalerro hauetan ezarritako pribatutasun-jardunbideei.

13. INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA

SMGk informazioaren segurtasunari buruzko programa bat du, eta, haren bidez, neurri teknikoak, fisikoak eta antolaketakoak ezartzen ditu datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentzialtasuna gordetzeko, datu pertsonalen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna arriskuan jartzen duten egoeretatik zaintzeko, eta datu pertsonalak babesteko, gal ez daitezen edo inork ez ditzan ez gaizki erabili, ez baimenik gabe aldatu, ezabatu, atzitu edo ezagutarazi.

Hala ere, datu pertsonalak tratatzen diren bakoitzean, baliteke datu horiek galtzea edo baimenik ez duen hirugarren batek gaizki erabiltzea, aldatzea, hackeatzea, urratzea edo beste bideren batetik atzitzea. Sistemak edo sareko datu-transmisioak ez dira inoiz guztiz seguruak. SMGk neurri teknikoak, fisikoak eta antolaketakoak aplikatzen baditu ere, zuk ere erabili beharko zenituzke segurtasun-neurri egokiak datu pertsonalak babesteko. SMG kontua edo eman zenigun edozein informazio jada segurua ez dela uste baduzu, jakinaraz iezaiozu berehala datuak babestearen arduradunari, posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com) edo +1-800-764-0439 zenbakira deituta eta SMGko datuak babestearen arduradunarengatik galdetuta.

14. FAKTORE GEOGRAFIKOAK ETA DATU PERTSONALEN MUGEZ HARAINDIKO TRANSFERENTZIAK

SMGk Ameriketako Estatu Batuetatik kontrolatzen eta eskaintzen ditu SMG zerbitzuak. SMGk munduko toki hauetan transferitu, gorde eta tratatu ahal izango ditu zure datu pertsonalak: Ameriketako Estatu Batuak, Erresuma Batua, Japonia, edo Asiako nahiz Europar Batasuneko beste tokiren batean. Kontuan izan zure datu pertsonalak hartzen dituen herrialdean aplikagarriak diren datuen babesari eta pribatutasunari buruzko legeak agian ez direla izango zure herrialdekoak bezain osoak. Adibidez, Ameriketako Estatu Batuetara transferitzen diren datu pertsonalak bertako agintari federalek eta estatu mailakoek kontsultatu ahal izango dituzte.

EU-U.S. Privacy Shield hitzarmenaren arabera transferitzen dira datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikotik (EEE) Ameriketako Estatu Batuetara. SMGk zorrotz betetzen ditu EEEtik jasotako datu pertsonalak biltzeari, erabiltzeari, partekatzeari eta atxikitzeari dagozkion EU-U.S. Privacy Shield hitzarmeneko printzipioak, EU-U.S. Privacy Shield ziurtagirian azaltzen den moduan. Ikusi Privacy Shield zerrenda [hemen](#). Lortu Privacy Shield hitzarmenari buruzko informazio gehiago [hemen](#). AEBko Merkataritza Batzorde Federalaren kontrolpean dago SMG, eta bera izango da erantzulea berarengandik datu pertsonalak jaso dituzten hirugarrenek datu horiek ez badituzte tratatzen Privacy Shield hitzarmeneko printzipioekin bat etorri, non eta SMGk ez duen frogatzen bera ez dela inola ere kaltea eragin duen gertakariaren erantzule. EEErekin zerikusirik ez duten datu pertsonalak pribatutasun-gidalerro hauetan eta aplikagarriak diren lege guztietan ezarritakoaren arabera transferituko dira. Privacy Shield hitzarmena betetzearen inguruko kexarik baduzu, jarri datuak babestearen arduradunarekin harremanetan, posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com) edo gutun bidez (Data Protection Officer, Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108). Erreklamazioak ebazteko aukeratu dugun organo independentera ere bidal dezakezu kexa, doan (alegia, American Arbitration Association elkartera), edo, bestela, kasu jakin batzuetan, Privacy Shield hitzarmeneko arbitraje-prozesua abiarazi.

Pribatutasun-gidalerroen ingelesezko bertsioa da SMGk bere zerbitzuekin erlazionatutako pribatutasun-jardunbideei buruz duen adierazpen ofiziala. Kontraesanen bat baldin badago pribatutasun-gidalerro hauen ingelesezko bertsioaren eta beste hizkuntza batera egindako itzulpenaren artean, ingelesezko bertsioa nagusituko da.

Halaber, kexa bat egin dezakezu, doan, gure aukeratutako independentea gatazka konpontzeko gorputza, American Arbitraje Elkartea (<http://go.adr.org/privacyshield.html>), eta zenbait kasutan, Pribatutasuna Shield arbitraje prozesua deitu.

15. NOLA JAR ZAITEZKE GUREKIN HARREMANETAN?

Pribatutasunari buruzko galderarik baduzu, zure datu pertsonalak atzitzeko edo eguneratzeko laguntza behar baduzu edo zure datu pertsonalak tratatzearekin erlazionatutako kexaren bat baduzu, jarri datuak babestearen arduradunarekin harremanetan, posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com).

Gutuna ere bidal diezagukezu, helbide hauetako batera:

Service Management Group, LLC
Attn: Data Protection Officer
1737 McGee Street
Kansas City, MO 64108

Service Management Group, Ltd.
Attn: Data Protection Officer
38-40 The Maltings
St Albans
Hertfordshire AL1 3HL
UNITED KINGDOM

Service Management Group G.K.
Attn: Data Protection Officer
2-7-16 No. 3 Komoriya Building 9F
Hamamatsu-cho, Minato-ku
Tokyo 1050013, Japan

16. DATUAK KONTROLATZEAREN ETA BABESTEAREN ARDURADUNA

Service Management Group, LLC taldeak kontrolatzen ditu SMGk biltzen dituen datu pertsonalak (Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108). Bi eratara jar zaitezke datuak babestearen arduradunarekin harremanetan: posta elektronikoko bidez (privacyofficer@smg.com) edo gutun bidez (Data Protection Officer, Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108).